ahal dezaten lortu erabiltzaileek izan dezaketena beste informaziorik.

2.— Bingo Enpresek edo baimendutako Entitateek hartzen dituzten neurriak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak kontrastatuko ditu, honek jokoaren garbitasuna ahalik eta haundiena izan dadin bidezkotzat jotzen dituen errekomendazioak egin ahal izango dituelarik.

*4. atala.*— Bolak ateratzeko makinak, Agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, publikoaren erdialdean egon beharko dute kokatuta, kontrol mahaitik berex.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Arautegi hau indarrean jartzen denean hiru milioi pezetatik gorako dirukopurua pilaturik duten Bingo Aretoek, gelaraziko egingo dute automatikoki bingo pilatu modalitatea, bigarren atalean adierazi den eran, eta hiru miloitako frakziotan zatituko dute pilatutako saria, azken frakzioa gehienezko tope horretatik beherako izan arte; une horretatik aurrera ekingo zaio berriro ere bingo pilatu modalitateari.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko abenduak 22.

Barne Sailburua,
JUAN LASA JAUREGUI.

empleados del bingo mientras se desarrolla la partida sea la misma que la que tienen los usuarios del juego en cada momento.

2. Las medidas adoptadas por las Empresas de Bingo o Entidades autorizadas serán contrastadas debidamente por la Dirección de Juego y Espectáculos, que podrá hacer las recomendaciones que estime procedentes de cara a la mayor transparencia del juego.

*Artículo 4.*— Las máquinas extractoras de bolas deberán, a partir de la entrada en vigor de la presente Orden, ser situadas en un lugar entre el público y separadas de la Mesa de control.

DISPOSICION TRANSITORIA

Las Salas de Bingo que, a la entrada en vigor del presente reglamento tuviesen acumulada una cantidad superior a tres millones de pesetas, paralizarán automáticamente la modalidad de bingo acumulado en la forma prevista en el artículo segundo, y dividirán el premio acumulado en fracciones de tres millones de pesetas, hasta que la fracción última sea inferior a dicho tope máximo, momento a partir del que volverá a jugarse la modalidad de bingo acumulado.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 1989.

El Consejero de Interior,
JUAN LASA JAUREGUI.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

37

275/1989 DEKRETUA, abenduaren 29koa, Urkiolaldea Parke Naturaltzat jotzen duena.

### ZIOEN ADIERAZPENA

Urkiolak Durangaldeko gailurretan ditu mugak, Anboto eta Aramotz mendikateen gailurretan, hain zuzen. Mendigune horien gaineko harkaitzak ekialdetik mendebalderantz daude lerroturik, Kantauri-Mediterraneo isurialdeen ur-banaketa osatuz.

Ingurune hori balio handikoa da, natura, kultura eta ikuspegien aldetik, eta Euskal Herriko ekosistemarik bereizgarrienetarikotzat har daiteke.

Urkiola artzainleku eta basogune izan da betidanik; aldean ez dago aipatzeko herririk, S. Antonio Saindutegia eta aldameneko ostatu eta jatetxeak izan ezik.

Hala eta guztiz ere, baso-suteak, bertako landaretzaren suntsipena eta horren ordez, ekonomiaren ikuspuntutik errentagarriago diren hazkuntza azkarragoko beste espezie batzu landatzeko dagoen joera,

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

37

DECRETO 275/1989, De 29 de diciembre, de declaración del Parque Natural de Urkiola.

### EXPOSICION DE MOTIVOS

La zona de Urkiola está integrada por el cresterio del Duranguesado y abarca las Sierras de Amboto y Aramotz, cuyos cordales y crestas forman un murallón en sentido Este - Oeste, sirviendo de divisoria de aguas entre la vertiente Cantábrica y Mediterránea.

El área cuenta con cualificados valores naturales, culturales y paisajísticos, y es considerada como uno de los ecosistemas de mayor singularidad del País Vasco.

Zona de tradición pastoril y explotación forestal, Urkiola no posee asentamientos humanos notables, exceptuando el Santuario de San Antonio y establecimientos hosteleros anejos.

Sin embargo, los incendios forestales, la destrucción de la vegetación autóctona y su cambio hacia especies de rápido crecimiento más rentables desde el punto de vista económico, la proliferación de cante-

harrobiak ugaltzea, azpiegitura-lanak direla-ta gertatzen ari diren aldakuntzak eta, orokorrean, azken hamarkada hauetan Urkiolak jasan duen neurriz kanpoko erabilera, horiek guzti horiek aski dira Urkiolako natur-ondasunak kudeatzeko sistema berri baten beharra argi eta garbi ikusteko.

Martxoaren 27ko 4/1989 Legeak, natur-inguruneak eta basa-landaretza eta animaliak babestekoak, Urkiola lehen esandako moduan zaintzeko aukera egokia eskaintzen du, parke naturaltzat jotzearen bidetik, hain zuzen.

Horixe da, zalantzarik gabe, Urkiolaldea antolatzeko berebiziko bidea, horren bitartez, xede desberdin batzutara heltzea nahi da, hots, dauden ekosistemak ahalbait hoberen gordetzea, hezkuntza eta jolas erabilerak sustatzea eta, babesgai diren ondasunak kontutan hartuz, bertako bizilagunen bizimodua geldiro baina goraka joan dadin ziurtatzea.

Eta helburu guzti horiek iristeko dago Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua, Urkiolaldea ordenatzeko benetako tresna bait da; horregatik lehenagotik zeuden lurralde-araubideak moldatuko dira Egitamuaren aginduetara, kontraesanak dauden guztietan.

Urkiola parke naturaltzat jo baino lehen, azterlan tekniko eta zientifikoak egin ziren, premia neurtu ahal izateko eta horien ondorioz, argi eta garbi ikusten da ingurune horrek gero eta txarragorako joera hartu duela; horrexegatik da premiazkoa Urkiolako natur-ondasunak babesteko berarizko arauketa bat ezartzea. Dena dela, Natur Inguruneetarako Lege berriak zenbait aldaketa ekarri du eta bere 15. atalak dioenez, Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuaren onarpena aldez aurretik egin behar da. Beraz, lehenago aipatu den premia kontutan izanda eta xedapen horren 2. pasartean ohartemandako salbuespenari atxekiz, beharrezkotzat jotzen da berarizko arauketa onartzea urtebeteko epean.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Urkiola Mendiko Nekazaritzako eskualdetzat hartua izan dela, hori dela kausa eta Europako Elkarteen aginduz, lehengo natur egoera berreskuratu eta zaindu beharra dago eta, aldi berean, ondare historiko eta kulturala gordetzeko ekintzak bultzatu behar dira.

Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuan oinarriturik, Dekretuak, 4/89 Legearekin bat etorriz, Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu Nagusia onartzea aurrikusten du, Parkearen barne-erabilera zehazteko asmotan.

Dekretu hau, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, «Autonomia-Elkarte osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoak» ezarritako eskurantza eta eginkizun banaketarekin ados dago, natur inguruneen kudeaketa tokian tokiko Foru Erakundeen ardurapean uzten bait du.

Erakunde kudeatzaile asko dagoenez eta Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua eta Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu Nagusia betetzearren, Foru Aldundiek burutuko dituzten iharduerak komunztatzeko beharra begibistakoa da, koordinazio-bideak

ras, las alteraciones del medio por efecto de obras de infraestructura y en general el uso abusivo que en las últimas décadas ha soportado la zona de Urkiola, ponen de relieve la necesidad de dotar a la misma de un nuevo sistema de gestión de sus valores naturales que garantice su mantenimiento o restauración, en su caso.

La Ley 4/1989, de 27 de marzo, de conservación de los espacios naturales y de la flora y fauna silvestres, ofrece el marco adecuado para dotar a Urkiola del régimen de protección exigido de acuerdo con lo anteriormente expuesto, a través de su declaración como parque natural.

Esta declaración supone, sin lugar a dudas, la vía adecuada para la ordenación de la zona de Urkiola, potenciando la conservación de los ecosistemas existentes, promoviendo los usos educacionales y recreativos y tendiendo, igualmente, dentro del respeto a los valores que se tratan de proteger, al desarrollo sostenido de las comunidades que la habitan.

A la consecución de estos objetivos se dirige el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, auténtico instrumento de ordenación de la zona, que al superponerse al resto de instrumentos de ordenación territorial y física existentes, se constituye en límite de éstos y les obliga a adaptarse en aquello en que pudieren resultar contradictorios con aquél.

La urgencia existente en el establecimiento de un régimen especial de protección de los valores naturales de la zona de Urkiola, a la vista del proceso de deterioro y degradación que lenta pero continuamente está sufriendo, tal y como se desprende de los estudios técnicos y científicos que, con ocasión del análisis de la pertinencia y oportunidad de una declaración como la que se pretende con el presente Decreto, se han realizado, unido todo ello a la coincidencia del cambio legislativo operado con la nueva Ley de Espacios Naturales, hacen inviable cumplir con el requisito establecido en su artículo 15 relativo a la necesidad de la previa aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales. Es necesario, por tanto, acogerse a la excepción prevista en el párrafo 2.º del citado precepto, y proceder a su aprobación en el plazo de un año.

Conviene destacar del área de Urkiola su catalogación como zona de Agricultura de Montaña, lo que justifica, por mandato comunitario, la impulsión y ejecución de acciones que tiendan a su conservación y restauración, así como a la preservación del patrimonio histórico y cultural.

Con base en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, el Decreto, en consonancia con la Ley 4/89, prevé la aprobación de un Plan Rector de Uso y Gestión, instrumento de detalle y concreción del funcionamiento interno del parque.

El presente Decreto es conforme con la distribución competencial y funcional operada por la Ley 27/1983, de 25 de noviembre de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos de sus Territorios Históricos» al atribuir la gestión del espacio natural a los órganos forales en cuyo territorio se extiende el área declarada.

Esta pluralidad de órganos gestores exige la necesidad de prever fórmulas de coordinación de las actuaciones a desarrollar por las Diputaciones Forales en cumplimiento y ejecución del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y del Plan Rector de Uso y

bilatu behar dira beraz. Hartara, Zuzendari-Kontserbatzaile bat izendatuko dute Organo kudeatzaileek, horretarako sinatuko diren akordioen arabera. Zuzendari-Kontserbatzaile horrek Parke Naturalaren benetako kudeatzaile gisa ihardungo du.

Zuzendari-Kontserbatzaileari beraz Parkearen kudeaketa dagokio, eta horren barnean, besteak beste, inbertsioen egitasmo eta lan-egitamuak egitea, behar diren obrak zuzentzea eta beharrezko diren gainerako ihàrduerak egiteratzea, kudeaketan esku duten organoen jarraibideen arabera eta Parke Naturalaren Zaingo-Batzordeak onarturiko urteroko inbertsio-programetan biltzen diren aurrikuspenak kontutan izanda.

Zaingo-Batzordea, Parke Naturalarekin zerikusia duten sektore eta interes desberdinen topagunea izango da, eta bereganatuko dituen eginkizunen artean, Parke Naturalaren inguruko inbertsio, iharduera, azterlan eta ikerketen urteroko egitasmoa onartzearena dago, baita esparru horretan eragina izan dezaketen xedapen eta lurralde-antolamendurako arauei buruzko txostenak ematearena ere.

Dekretuan esaten denez, aurrekontuetan behar adinako dirusailak bereiziko dira finkaturiko xedeak iristearren, Administrazioak, bere aldetik, «eroslehentasun» eta «atzera-eskuratzeko» eskubideak izango ditu eta, kontrapartean, jadaneko eskubideei gabetze edo murrizpenen truke kalte-ordainak emateko beharra izango du.

Azkenik, azpimarratu egiten da Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua idazteko espedienteari hasiera ematea, Parke Naturaltzat jotzeko Dekretuaren onarpenarekin bat etorriko dela eta azpimarratu ere egiten da ze-nolako eragina izango duen idazpen eta ondorengo onarpen horrek orain arte egon diren antolamendu-egituretan.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza-Kontseiluak bere 1989.eko abenduaren 29ko bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Xedea

Durangaldeko malkorren artean, Anboto eta Aramotz mendikateetan mugak dituen Urkiola izeneko esparrua Parke Naturaltzat jotzea eta bertan Natur Inguruneak eta Baso-landaretza eta Animaliak babesteko den martxoaren 27ko 4/89 Legearen araberako erregimena eratzea.

*2. atala.*— Helburuak

Aipaturiko lege-erregimenak hurrengo puntu hauek izango ditu helburu:

a.— Funtsezko prozesu ekologikoak mantendu eta berreskuratzea.

b.— Aniztasun genetikoa gordetzea.

c.— Baliabide naturalen ekoizpena hobetu eta berrindartzea.

d.— Baliabide naturalesn erabilpen ordenatu eta arrazoibidezkoa.

e.— Natur ekosistemek eta ikuspegiek dituzten alderdi ugariak, eta horien berezkotasuna eta edertasuna jagotea.

f.— Alderdi horretako balore naturaletak ezaguru eta horietaz gozatzeko kanpotikako jende-etorria bideratu eta ordenatzea.

Gestión. A tal fin, se dirige la existencia de un Director-Conservador, auténtico gerente del Parque Natural, el cual habrá de ser nombrado por los órganos gestores de acuerdo con los convenios que a tal fin hayan de suscribir.

Al Director-Conservador le corresponde la impulsión de la gestión del Parque, elaborando los planes de trabajo y los programas de inversiones, dirigiendo las obras necesarias y ejecutando cuantas actuaciones sean precisas dentro de las Directrices de los órganos a quienes corresponde la gestión y de las previsiones contenidas en los programas anuales de inversiones aprobados por el Patronato del Parque Natural.

El Patronato se constituye como el órgano de participación de los diferentes sectores e intereses implicados en el área del Parque Natural, al que se le atribuyen funciones tan importantes como la de aprobar el programa anual de inversiones, actuaciones, estudios e investigaciones del Parque Natural, amén de las de informar las disposiciones e instrumentos de ordenación del territorio que afecten al área declarada.

El Decreto, además, prevé la necesidad de contar con las pertinentes dotaciones presupuestarias para acometer los objetivos previstos, alude a los derechos de tanteo y de retracto de la Administración así como a la necesidad de indemnizar las privaciones y limitaciones de derechos existentes.

Por último, se hace referencia al inicio del expediente de elaboración del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales que coincidirá con la aprobación del Decreto de declaración, y a los efectos limitadores que en los instrumentos de ordenación existentes va a suponer dicha elaboración y subsiguiente aprobación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su reunión de 29 de diciembre de 1989,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Objeto

Es objeto del presente Decreto la declaración del Parque Natural de Urkiola, a la zona del cresterío del Duranguesado comprendida por las Sierras de Amboto y Aramotz, estableciéndose para la misma el régimen especial de protección previsto en la Ley 4/89, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres.

*Artículo 2.*— Finalidad

Dicho régimen jurídico tendrá la siguientes finalidades:

a.— El mantenimiento y recuperación de los procesos ecológicos esenciales.

b.— La preservación de la diversidad genética.

c.— La mejora y reforzamiento de la producción de los recursos naturales.

d.— La utilización ordenada y racional de los recursos naturales.

e.— La preservación de la variedad, singularidad y belleza de los ecosistemas naturales y del paisaje.

f.— Canalizar y ordenar la afluencia externa para el conocimiento y disfrute de los valores naturales de la zona.

g.– Baliabide naturalen erabilpen arrazoizkoan oinarritutako gizarte eta ekonomi potentziazioa.

*3. atala.*– Lurralde esparrua

1.– Urkiolako Parke Naturalak, gutxi gorabehera 5.768 Ha dituela, Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza, Mañaria eta Aramaio herrietako zenbait lurralde bereganatzen du.

2.– Parke Naturalaren mugak, Dekretu honen I Eraskinean errepresentatzen dira eta II Eraskinean deskribatzen.

I Eraskina: Planoak.
II Eraskina: Parkearen mugen deskribapena.

3.– Jaurlaritza-Kontseiluaren Dekretu bidez, jabetza publiko nahiz pribatuko lurraldeak atxeki dakizkioke Parke Naturalari, beti ere baldintza egokiak badituzte Urkiolak hasieratik zuen lurraldeari itsasteko. Hala eginez gero, Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua aldatu eta lursail itsatsi berri horietara zabaldu beharko litzateke, Dekretu honen 6.4 atalean ezarritako prozedurari jarraikiz.

*4. atala.*– Parkea babesteko arau orokorrak

Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuak eta Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu Nagusiak agintzen dutenaren kalterik gabe, Parke Naturalaren esparruan hurrengo arau orokorrak ezartzen dira:

a) Debekatu egiten da berariaz:

– Bertakoak ez diren landare edo abereak parke-esparruan sartzea, dagokion Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren baimenik gabe.

– Zaborrak edo zarama, edonolakoa delarik ere, botatzea edo uztea, kudeaketa organuak horretarako egokitutako lekuetatik at.

– Suak piztea, ohizko gauzetarako eta dauden etxeen barruan egiten direnak salbu.

– Parke Naturaleko mugen barnean, kirola egitea motordun ibilgailuetan. Halabaina, dauden etxemultzoetako sarbideetatik zehar horielakoetan ibiltzea zilegi da.

– Akanpada librea.

– Meategi berriak zabaltzea.

b) Produktu fitosanitarioen erabilera, 1975eko abenduaren 9ko Aginduan, baso-animaliei kalterik ez egitearren produktu fitosanitarioen erabilera arautzen duen Agindu horretan ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

*5. atala.*– Batera egin daitezkeenak

Dekretu honen bidez ezarritako babes-araubideak ez du oztopatzen honako hauek aurrera eramatea:

a.– Autonomi Elkarteko, Estatuko, Herrialde Historikoetako Foru Aldundietako eta Toki Erakundeetako Administrazioek hurrengo hauez dituzten eskurantzak:

– jabari publikoaren ondasunez
– mendiei buruzko legeriaren arabera, «erabilgarritasun publiko»ko eta «babesle» delako mendiez.

b.– Jadaneko eskubide pribatuak.

c.– Ohizko iharduerak eta horien inguruko balia-

g.– La potenciación social y económica basada en la utilización racional de los recursos naturales.

*Artículo 3.*– Ambito territorial

1. El Parque Natural de Urkiola, con una extensión territorial aproximada de 5.768 Has., afecta a los términos municipales de Abadiño, Amorebieta-etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurza, Mañaria y Aramaio.

2. Los límites geográficos del Parque se representan en el Anexo I y se describen en el Anexo II.

Anexo I : Planos.
Anexo II: Descripción de los límites del Parque.

3. Por Decreto del Consejo de Gobierno, podrán incorporarse a dicho Parque Natural terrenos de propiedad pública o privada, siempre que los mismos reúnan las condiciones adecuadas para ser incorporados al territorio inicial de Urkiola, previa modificación y extensión a dichas zonas del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales de acuerdo con el procedimiento establecido en el artículo 6.4 del presente Decreto.

*Artículo 4.*– Normas generales para su protección

Sin perjuicio de lo que el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y el Plan Rector de Uso y Gestión dispongan a tal efecto, se establecen en la zona del Parque Natural las siguientes normas generales:

a) Se prohíbe expresamente:

– la introducción sin la autorización del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral competente de especies vegetales o animales no autóctonas.

– el vertido o abandono de todo tipo de escombros, desechos o basuras fuera de los lugares habilitados al efecto por el órgano gestor.

– el encendido de fuego, salvo para aquellos usos tradicionales en el interior de las edificaciones existentes.

– la práctica deportiva con vehículos motorizados en los límites del Parque Natural. No obstante, el acceso con este tipo de vehículos con fines recreativos estará permitido por las carreteras de acceso, hasta los núcleos urbanos existentes.

– la acampada libre.

– la apertura de nuevas explotaciones mineras.

b) La utilización de productos fitosanitarios se adecuará a lo dispuesto en la Orden de 9 de diciembre de 1.975, relativa al uso de los productos fitosanitarios para prevenir daños a la fauna silvestre.

*Artículo 5.*– Compatibilidades

El Régimen de protección establecido en el presente Decreto será compatible con el ejercicio de:

a.– las atribuciones de la Administración Autonómica, de la Administración del Estado, de las Administraciones Forales de los Territorios Históricos y de las Corporaciones Locales sobre

– bienes de dominio público
– montes de utilidad pública y protectores de acuerdo con lo dispuesto en la legislación de montes

b.– los derechos privados existentes

c.– las actividades tradicionales y el ordenado

bideen behar bezalako aprobetxamendua, erabakitako babes-helburuak betetzearren ezarri diren mugen kaltetan joan gabe.

6. *atala.*— Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua.—

1.— Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamu bat idatziko da urtebeteko epean Urkiolako Parke Naturalaren lurralderako. Egitamuak honako hauek izango ditu helburu nagusi:

a) Natur baliabide eta ekosistemen egoera, landatar arkitektur ondarea eta hango biztanle guneek dituzten ezaugarriak definitu eta zehaztea.

b) Ingurune hartako gaur egungo egoera nolakoa den ikusi ondoren, ezarri beharreko mugapenak zehaztea.

c) Natur baliabideen lehengo egoera berreskuratzeko, egoera horri eusteko eta hobekuntzarako neurriak sustatzea.

d) Kanpoko jendearen etorrera bideratu eta antolatzea.

e) Ekonomi nahiz gizarte arloetako iharduerak, publiko zein pribatuak, antolatzen dituzten politikak eta sektorekako politikak taiutzeko erizpideak, aldez aurretik finkaturiko eskakizunekin bat etorriko direnak, ematea.

2.— Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuak gutxienez hurrengo puntu hauek izango ditu eginkizun:

a) Natur baliabideek dituzten ezaugarri fisiko, biologiko eta sozioekonomikoen deskribapen, interpretamen eta diagnostikoa.

b) Esparru hori osatzen duten natur baliabide, ekosistema eta ikuspegien egoerari buruzko definizioa, egungo ebaluazioa eginez eta geroan egoera horrek nolako bilakaera hartuko duen azalduz.

c) Esparrua aldeka banatzea. Erabilera edo iharduerei dagokienez, mugapen orokor eta zehatzak ezarriko dira, alde bakoitzean finkaturiko babes-mailaren arabera.

d) Basa-landaretzak eta animaliek beren lehengo egoera berreskuratu eta horretan iraun dezaten egitamuak ezartzea.

e) Babesgai den esparruaren gainean eragina duten sektorekako politika desberdinak taiutu eta egiteratzerakoan, kontutan hartzen diren erizpideen definizioa.

f) Ingurugiroak jasandako Eraginen Ebaluazioaren ildotik, ekainaren 28ko 1302/1986 Erret Dekretu Legislatiboaren bidez eta hura garatzen duten arauen bidez ezarritako ebaluazio-erregimena, zein ihardueerari, lani edo instalakuntza publiko nahiz pribaturi aplikatu behar zaion zehaztea.

g) Egitamu Orokor eta Arau subsidiarioetan ohartemandako babes neurrien garapena, behar diren alderdi guztiak osatuz.

h) Natur baliabideen erabileran edo aprobetxamenduan ezar litezkeen murrizpenengatik edo Egitamuan ohartemandako gainerako ekintzengatik sortu
riko ondorio ekonomikoak neurtzea, finantzal kostua zein Herri Erakundek xurgatzen duen zehaztuz.

aprovechamiento de sus recursos, sin perjuicio de las limitaciones que se impongan en función de los objetivos de protección establecidos.

*Artículo 6.*— Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

1. Se redactará en el plazo de un año un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales para el territorio del Parque Natural de Urkiola, que tendrá como objetivos principales los siguientes:

a) Definir y señalar el estado de conservación de los recursos naturales y ecosistemas, el patrimonio arquitectónico rural y las peculiaridades de sus núcleos de población.

b) Determinar las limitaciones que deban establecerse a la vista del estado de conservación.

c) Promover la aplicación de medidas de conservación, restauración y mejora de los recursos naturales.

d) Canalizar y ordenar la afluencia externa de la zona.

e) Formular criterios orientadores de las políticas sectoriales y ordenadoras de las actividades económicas y sociales, públicas y privadas, que sean compatibles con las exigencias señaladas.

2. El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales tendrá como mínimo el siguiente contenido:

a) Descripción, interpretación y diagnóstico de sus características físicas, biológicas y socioeconómicas.

b) Definición del estado de conservación de los recursos naturales, los ecosistemas y los paisajes que integran el ámbito territorial en cuestión, formulando una evaluación del mismo y una previsión de su evolución futura.

c) Zonificación del área con determinación de las limitaciones generales y específicas que, respecto de los usos y actividades, hayan de establecerse en función del nivel de protección establecido en cada área.

d) Establecimiento de planes de recuperación, conservación y manejo de la flora y fauna silvestre.

e) Definición de las directrices orientadoras en la formulación y ejecución de las diversas políticas sectoriales que inciden en el área objeto de protección.

f) Concreción de aquellas actividades, obras o instalaciones públicas o privadas a las que deba aplicárseles el régimen de evaluación previsto en el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio y normativa que lo desarrolle, en materia de Evaluación de Impacto Ambiental.

g) El desarrollo de las previsiones de protección de los Planes Generales y Normas Subsidiarias, completando todos aquellos aspectos necesarios.

h) Evaluación de las repercusiones económicas, derivadas tanto de las posibles restricciones en el uso o aprovechamiento de los recursos naturales, como de la ejecución del resto de actuaciones previstas en el Plan, con determinación, en cualquier caso, de las Entidades Públicas que asumen el coste financiero.

3.– Beherago aipatzen diren jazoerak gertatuz gero, Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua aldatu beharrez egongo litzateke:

a.– Hasierako erizpide edo helburuetan aldakuntzak direnean.

b.– Lurralde eremua zabaltzen denean.

c.– Babesgai diren ondasunak jagoteko, neurri zorrotzagoak ezarriko balira.

4.– Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua eta geroan egin dakizkiokeen aldaketak onartzeko prozedura honelakoa izango da:

a) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak idatziko du Egitamua, baina Parke Naturaleko Zaingo-Batzordearen Talde Iraunkorrak egingo dio jarraipena.

b) Egitamua behin idatzi ondoren, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren esku egongo da hasierako onarpena ematea, aldez aurrretik dagokien Foru Aldundietako Nekazaritza Sailen eta Parke Naturaleko Zaingo-Batzordearen txostena jasorik. Baiezkotzat hartuko dira txostenak, hilabetearen epean luzatzen ez badituzte, espedientea jaso zutenetik hasita.

c) Hasierako onarpena eman eta gero, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren Agindu bidez, jendaurrean jarriko da 30 egunetan zehar, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz geroztik.

Aginduan bertan adieraziko da, halaber, Egitamua non egongo den aztergai jendearentzat.

Interesdunek egoki jo adinako proposamen, adierazpen eta iradokizun aurkez dezakete aipaturiko epearen barnean.

d) Nekazaritza eta Arrantza Sailak, jendaurrean jarri eta hala izanez gero bidezko aldaketak sartu ondoren, behin-behingo onarpena erabakiko du. Hasieran onarturiko Egitamua eta, aldaketak sartu ondoren geratu denaren artean alde nabarmena egongo balitz, erizpide eta irtenbideei dagokienez; berriz ere erakutsiko da jendaurrean lehengoan bezala, behin-behingo onarpena eman aurretik.

e) Behin-behingoz onartu ondoren, Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko Batzordeak Egitamuari buruzko txostena idatziko du. Bertan azaltzen den eritzia loteslea izango da industria eta zerbitzuen garapena neurtzeari dagokionez, azpiegitura eta ekipamenduen arloetan eta egile den Sailaren esku ez dauden gainerako gaietan. Aipaturiko txostena bi hilabeteren epean emango dute aditzera, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak espediente osoa jasotzeaz geroztik hasita.

f) Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuaren behin-betiko onarpena Eusko Jaurlaritzari dagokio. Horrek dekretu bidez egin eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du.

*7. atala.*– Kudeaketa

Parke Naturalaren kudeaketa, Parkearen mugen barruan dauden Herrialdeetako Foru Aldundietako Nekazaritza Sailei dagokie.

Aipaturiko Foru Aldundiek horretarako sinatuko

3. El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales deberá ser modificado en los siguientes supuestos:

a.– alteración de los criterios y objetivos iniciales

b.– ampliación del ámbito territorial

c.– mayores exigencias en cuanto a la preservación de los valores protegidos.

4. El procedimiento para la aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y sus modificaciones será el siguiente:

a) El Plan será redactado por el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, siendo su elaboración objeto de seguimiento por la Comisión Permanente del Patronato del Parque Natural.

b) Una vez redactado el Plan, corresponderá al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco su aprobación inicial, previo informe de los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales afectadas, y del Patronato del Parque Natural, los cuales se entenderán favorables si no se emitiesen en el plazo de un mes a contar desde la recepción del expediente.

c) Aprobado inicialmente, se someterá a información pública mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, durante un período de 30 días naturales, a partir de la publicación de aquélla en el B.O.P.V.

La citada Orden determinará asimismo los lugares en que quedará expuesto el Plan.

En el período mencionado podrán presentarse por los interesados cuantas propuestas, alegaciones y sugerencias estimen pertinentes.

d) El Departamento redactor, a la vista del resultado de la información pública, acordará la aprobación provisional con las modificaciones que, en su caso, procediesen. Si dichas modificaciones significasen un cambio sustancial en los criterios y soluciones del Plan inicialmente aprobado, será objeto, antes de someterlo a aprobación provisional, de un nuevo trámite de información pública con los mismos requisitos que el anterior.

e) Una vez otorgada su aprobación provisional, el Plan de ordenación de los Recursos Naturales se someterá a informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del Pais Vasco, que tendrá carácter vinculante en lo relativo a la cuantificación del desarrollo industrial y de servicios, las infraestructuras, equipamientos y demás materias del Plan cuya ordenación no sea competencia del Departamento redactor. El citado informe será emitido en el plazo de dos meses contados a partir de la recepción del expediente completo en el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

f) Corresponderá la aprobación definitiva del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales al Gobierno Vasco mediante Decreto, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 7.*– Gestión

Corresponde la gestión del Parque Natural a los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales afectadas por la extensión territorial del Parque Natural.

Las referidas Diputaciones Forales gestionarán el

diren haien arteko hitzarmenen arabera kudeatuko dute Parkea.

*8. atala.*— Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu Nagusia.—

1.— Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamua behin-betikoz onartu eta urtebeteko epean, Eusko Jaurlaritzak, 6.4. atalean ezarritako prozeduraren arabera, Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu Nagusia onartuko du, indarrean gehienez 4 urtetan egongo dena; epea bukatu ondoren, gainbegiratu beharko da berriro.

2.— Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamuak honako hauek izango ditu helburu nagusi:

a.— Erabilera, iharduera eta ekintza zehatzen kudeaketa-arauak definitu eta garatzea, asmoak hauexek bait dira: natur baliabideak beren hartan mantentzea eta aspaldiko egoera txarragotu bada galduriko aberastasuna berreskuratzea. Bide batez, babesgune bati dagozkion xedeak betetzen direla bermatuz, hala nola: natura orokorrean interpretatzea, ingurugiroko hezkuntza, natur ingurunea neurriz erabili eta hartaz gozatzea, Parkean edo haren inguruan bizi direnen garapen sozio-ekonomikoa eta horri buruzko ikerketa.

b.— Baliabide mota bakoitzeko dauden berarizko babestarauak definitzea.

c.— Iharduera sozio-ekonomikoak, parke naturalaren barruan egiten direnak, arautzen dituzten xedapen orokorrak.

d.— Herri erabilerarako Egitamu bat egitea, alderdi desberdinak babesteko eta, aldi berean, hezkuntza, aisia eta jolas leku bezala erabili ahal izateko.

e.— Parke eta inguruaren artean harreman orekatuak jar daitezen neurriak sustatzea.

f.— Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuan eta Parkea Erabili eta Kudeatzeko Egitamu Nagusian ezarritako arauei dagozkien hausteak tipifikatzea, martxoaren 27ko 4/89 Legean ohartemandako zigorbidearen arabera.

*9. atala.*— Parke Naturaleko Zaingo-Batzordea.—

1.— Urkiola Parke Naturaleko Zaingo-Batzordea erakunde laguntzaile eta aholku-emale gisa eratzen da.

2.— Zaingo-Batzordeak Osoko Bilkuretan eta Talde Iraunkorretan ihardungo du.

3.— Zaingo-Batzordearen Lehendakaria Eusko Jaurlaritzaren Akordio bidez izendatuko da, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez.

4.— Zaingo-Batzordea osatuko dutenak, lehendakariaz gain, honako hauek izango dira:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak izendaturiko bi ordezkari.

— Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxabizitza eta Ingurugiro Sailburuak izendaturiko bi ordezkari.

